



TXOSTENA

Gaia: Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren Bigarren Jardueraren gaineko Erregelamenduaren zirriborroa Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Atarian jendaurrean egon den bitartean, testuari egin zaizkion ekarpenak.

Uztailaren 4an Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren Bigarren Jardueraren gaineko Erregelamenduaren zirriborroaren testua argitaratu zen Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Atarian.

Jendaurrean egoteko epea bukatu delarik, hiru ekarpen aurkeztu dira, txosten honi erantsi zaizkionak. Hona hemen haiei buruzko balorazioa:

Jesús María Casajús Apestegui jaunaren ekarpena

Interesdunak adierazi du argitaratutako agiria Gardentasunaren Atarian argitaratu ondoren aldatu dela, sindikatuetakoa ordezkarien eta zuzendaritzaren arteko negoziazio prozesu baten ondorioz, eta proposatu du erabakitako aldaketa, lehenengo lekualdatze lehiaketari dagokiona, tramitatzen ari den testuan sartzea.

Egia da Jesús María Casajús Apestegui jaunak aipatutako aldaketa erregelamenduaren zirriborroa Gardentasunaren Atarian argitaratu eta gero txertatu dela, sindikatuetakoa ordezkarien eta Administrazioaren arteko negoziazioaren ondorioz.

Hortaz, Jesús María Casajús Apestegui jaunaren proposamena foru dekretuaren tramitazio prozesuan jaso da.

Francisco Javier Tapia Anaut jaunaren ekarpena

Francisco Javier Tapia Anaut jaunaren proposamena Jesús María Casajús Apestegui jaunak egindakoaren antzekoa da. Hortaz, bere proposamena foru dekretuaren tramitazio prozesuan jaso da.



Alfonso Carlos Moreno Merelo jaunaren ekarpena

Interesdunak zera adierazi du:

1. Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Atarian argitaratutako agirian ez da jasotzen gero egindako aldaketa bat, eta horren ondorioz “Gobernuak gardentasunerako eta parte-hartzerako hartutako erabakia urratzen du, zati bat ez baita jaso zirriborroaren testuan”.
2. Erregelamenduaren zirriborroaren testuan egindako aldaketa horrek ezartzen du lehenengo lekualdatze lehiaketan ez direla eskainiko lanpostu guztiak, baina horrek ez du bermatzen objektibotasuna, gardentasuna, interes orokorraren zerbitzua eta legezketasuna modu justifikatu eta parte-hartzaile batean, herritarrek administrazio ona izateko eskubidea gauzatzeko.
3. Argitaratu den Erregelamenduaren zirriborroak ez ditu ezintasun kasuak aurreikusten, irizpen medikoa aurkeztuta ere.
4. Beste zuzendaritza edo departamentuetatik eskatzen diren txostenetan ezin izanen dira baloratu testua Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Atarian argitaratu ondoren sartutako aldaketak.

Horri dagokionez, zera adierazten da:

- Argitaratu den testuaren funtsezko zatia ez da aldatzen lanpostuak esleitzeko lehenengo lehiaketa aldatuta ere (edo lehenengo lekualdatze lehiaketa, argitaratutako zirriborroan erabilitako hitz berak erabiliz).
- Sindikatuetakoa ordezkariekin negoziatu ondoren Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Atarian argitaratutako testuari aldaketa bat egitea legedian jasota dagoen aukera bat da. Agiria Mahai Sektorialera eraman zen 2017ko abenduaren 1ean, azter zezan.
- Bigarren jarduerara igarotzen diren langileen gaitasun psikofisikoa Erregelamenduaren zirriborroaren testuan jaso diren irizpideetako bat da.



- Sindikatuen ordezkariekin negoziatu ondoren aldatu den agiria Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak baloratu ahal izanen du.

Iruñean, 2017ko abenduaren 10ean

SUHILTZAILEEN ZERBITZUKO ZUZENDARIA

Stua.: F. Javier Bayona Iturrarte